




# ESKOLA-KIROL EREDUA. GOGOETAK ETA PROPOSAMENAK

*Jardunaldiaren ondorioak*

Arrasate, 2017ko azaroak 24



## ENTIDADES ORGANIZADORAS



## ENTIDADES COLABORADORAS





***Txostenaren erakunde promotoreak:***

Eusko Jauraritza (Kirolaren Euskal Eskola)  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Debagoienako Mankomunitatea

***Txostenaren erakunde kolaboratzaileak:***

Arabako Foru Aldundia  
Gipuzkoako Foru Aldundia

***Txostenaren egilea:***



2017ko abendua



## 1. SARRERA

Dagoeneko badira 25 urte Eskola Kiroleko programak martxan jarri zirela gure erkidegoan. Garai hartan aitzindariak eta berritzaileak izan ziren programak etengabe eraldatzen eta behar berrietara moldatzen jarraitzen dute, kirol-maila eta gaitasuna edozein izanik ere, eskola adineko haur guztiek kirola egiteko aukera izateko helburuarekin.

Aurten hiru foru aldundiak beraien lurraldeetako Eskola Kiroleko programei buruzko ebaluaketak egin eta proposamenak bideratzen ari dira. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak Kirol Lege berri bat sortzeko prozesua ere abian jarri du; Kirol Legearen errebisiorako, arloan funtsezkoak diren gai ezberdinei buruzko lantaldeak martxan jarritz (tartean, adituez osatutako Eskola Kirolaren Lantaldea).

Gogoeta garaia da beraz. Paregabeko abagunea Eskola Kiroleko hausnarketa kaleratu eta eskola kirolean funtsezkoak diren gizarte eragileekin ideiak elkarbanatu, proposamenak jaso eta ereduaren norabidea finkatzeko.

Helburu horrekin antolatu du Eusko Jaurlaritzako Kirolaren Euskal Eskolak, hiru foru aldundien eta Debagoienako Mankomunitatearen laguntzarekin, “Eskola-kirol eredu. Gogoetak eta proposamenak” jardunaldia azaroaren 24an Arrasateko Polo Garaian. Bertan 100 eragilek baino gehiagok hartu dute parte, eta hiru lurraldeetako Eskola Kiroleko hausnarketak aurkezteaz gain, Eskola Kirolaren oinarritzkoak diren hamar gakoetako buruzko eztabaida arrakastatsua sustatu da.

Jarraian, bertan jorratutako bi ildoak aipatuko ditugu. Batetik, Foru Aldundi bakoitzak bere azalpenetan emandako ideiak islatuko ditugu; bestetik, jardunaldian parte hartu zuten pertsonen ekarpenen laburpena.



## 2. FORU ALDUNDIEN AZALPENAK

### 2.1. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko aholkulari Carlos Sergiok Bizkaiko eskola-kirolaren erronkak aurkeztu zituen, honako hauei buruzko gogoeta baten ondoriozkoak:

1.- Eskola-kirolaren sistemaren ezaugarriak:

- Irekia, ezegonkorra, konplexua, dinamikoa, interaktiboa eta borondatezkoa.

2.- Eskola-kirolaren programan azken zortzi urteetan izandako parte-hartzearen datuak.

- Kirolari kopurua
- Langile teknikoen kopurua
- Kirol-modalitateen kopurua
- Jarduera motak

3.- Eskola Kirolaren Atalaren azterketak eta proiektuak:

- Eskola-kirolaren errealitateari buruzko azterketak
  - Eskola Kirolaren ereduari egindako ekarpenak (2013)
  - Ikasleen kirol-ohiturei buruzko azterlana (2016)
- Kirol-eskaintza gehitzea-sortzea:
  - Heziki: aurrebenjamin kategoriarako kirol-jarduera.
  - Futbol 9, emakumezkoen futbolerako
- Kluben eta ikastetxeen kudeaketa indartzea
  - Eskolako kirol-proiektua
  - 3K Proiektua
- Kirola egiteko inguru bikaina sortzea:
  - Eskola-kirolaren gakoak gurasoen ikuspuntutik (informazio-pilulak)
  - Txartel beltza

Aurkezpenean, zenbait alderdi kuantitatibo eta kualitatibo beharrezkotzat jo ziren Eskola Kirola Programaren emaitzak hobetzeko. Jarrian, aurkezpen horretako ideia eta adierazle nagusiak aipatuko ditugu.

**Helburu kuantitatiboa:** Ikasle guztiek parte hartzea Eskola Kirola programan, kirola egiteko ohitura har dezaten.

Bizkaiko ikasleek 2016an zituzten kirol-ohituren errealitatea hobeto ezagutzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ikerketa bat egin zuen eta honako datu hauek eman:



- Kirol-jardute mailari dagokionez: Neska-mutilen % 95,6k egiten du kirolen bat. Guztizko hori modu honetan banatu daiteke: % 62,2k antolatutako eta antolatu gabeko jardueretan hartzen du parte; % 20,4k, antolatu gabekoetan soilik, eta % 13k, antolatuetan bakarrik.
- Kirola egiten emandako denborari dagokionez: 6 eta 16 urte bitarteko ikasleei dagokienez, nabarmendu behar da % 60k astean 5 ordu edo gehiago ematen dituela kirola egiten. Horien artean, talderik aktiboena 10-12 urte arteko neska-mutilena da (% 71,8).
- Kirol motari dagokionez: Antolatutako zein antolatu gabeko kirol-jardueretan parte hartzen duten neska-mutilen % 60k udal-klubetan eta -instalazioetan egiten dute, zeren eta beren inguruko pertsonak horrelako praktika bermatzen baitute, eta gustuko dutelako.
- Langile teknikoei dagokienez: Langile teknikoek heren bat bakarrik dira emakumezkoak. Horregatik, hausnarketa egin behar da emakumeek Eskola Kirolean duten partaidetza aktiboari buruz.

**Helburu kualitatiboak:** Ikasleen garapena integrala izan dadin, kirolaren orientazio hezitzailea bermatzen duen ingurua sortzea, inplikaturako agente guztien laguntzaz (udalak, federazioak, klubak eta ikastetxeak).

- Erakundeen kudeaketari dagokionez: Profil hezitzailea duen kirol-arduradunaren figura finkatzea eta profesionalizatzea, kirol-erakundeek kirol mota bakoitzari egokiturako kudeaketa egin dezaten.
- Langile teknikoek prestakuntzari dagokionez: Langile teknikoek (entrenatzaileak eta kirol-arduradunak) prestakuntza hobetzen jarraitzea, sustatzen diren prestakuntza-ikastaro ofizialak egokituz araudien aldaketa berrietara eta kirol-, eskola- eta federazio-sistemen beharretara.
- Kirol-jardutearen kontrolari dagokionez: Auditoriak egitea, ezagutzeko eskola-kirolaren programan parte hartzen duten erakundeek beharrak eta detektatzeko eskola-kirolaren xedeen aurkako praxiak. Adibidez, eskola-kirola merkataritza-xedeekin erabiltzea.
- Eskola-kirolaren erregulazioari dagokionez: Sakontasunez berrikustea eskola-kirolaren programari aplikatzen zaizkion araudiak, hala aldaketak planteatu eta proposatzeko, inplikaturako eragileen arteko harremanak egonkortu eta iraunkortzeari begira.



## 2.2. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Jarraian, Iñaki Iturrioz Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol zerbitzuko buruak, lurralde honetako Eskola Kirolaren 2017/18 ikasturteko programaren berrikustean egindako aldaketak eta martxan jarritako esku-hartzeak azaldu zizkigun.

- Aurre-benjamin mailarako jardueren eskaintza garatzea. Eskaintzaren azterketa eta programa espezifikoa garatzen ari dira.
- Eskola-kiroleko langile teknikoen prestakuntza eta arauketa. Begiraleen lan-egoerari buruzko azterketa bat egin da, eta beharrezko profila eta gaitasun egokiak zehaztu dira. Langile teknikoentzako prestakuntza-plan bat egin da. Koordinatzaile pedagogikoaren figura sortzea aztertu da.
- Eskola kirolean bortizkeriaren prebentzioren aldeko neurriak. Hau garatzeko kanpaina berezia martxan jarriko da.
- Genero berdintasunaren aldeko neurriak. 6-8 urte bitarteko umeen artean berdintasuna bultzatzeko irizpideak txertatu. Monitoreei zuzenduriko prestakuntza. Nesken parte hartzea sustatzeko neurrien ikerketa egin.
- Euskararen erabilera bultzatu Eskola Kirolaren programan. Erakundeen arteko koordinazioa eta jarduerak garatzeko euskarriak euskaraz egotea ziurtatzea.
- Argi eta garbi definitu behar dira ikastetxeen esparruan parte hartzeko irizpideak. Haurren kategoriako lehen urtearen aurretik, kirola egin nahi duten ikasleek nahitaez egin beharko dute ikastetxeko taldeetan. Benjamin aurreko programaren jarduerak ikastetxeen bidez egingo dira soilik, berariaz baimendutako jarduerak izan ezik.
- Arautu gabeko talde eta banakako modalitateen irakaskuntzaren erregulazioa. Federazioekin batera honen inguruko azterketa egingo da.
- Mugikortasun geografikoa ikastetxeetako ikasleen beharren arabera izango da. Kimuen bigarren urteko errendimenduari ekiteko jardueretan eta aurrebenjamin eta kimuentzako klubetan eskoletako jardueretan, ikasle bakoitzak bere udalerriko klubetan hartuko du parte, nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak salbuespenak egiteko esku-mena duen.
- Alebin bigarren mailako futbol jardueraren berregituratzea. Talde eta jardunaldi kopurua mugatu da. Multikirolarekin bateratzeko malgutasuna landu da.
- Ikasturteko txapelketa osagarrien egutegia egin. Igandeetan ospatzen diren banakako eta talde kirolen egutegiaren arteko koordinazioa lantzen ari da.



- Eskola-kirolaren programaren finantzazio-eredua hobetzea. Koordinatzailearen figura eta laneko erregulazioa kontuan harturik, programaren puntuen kostu osoaren azterketa egiten ari dira. Neurriak ezarriko dira parte-hartzaile guztiek programan esku hartzeko. Aurreko guztia bermatzeko, 2018ko aurrekontuko partida handituko da.
- Eskola-kirolaren jarduerak ikuskatzeko programa. Ikuspuntu legaletik aztertzen ari dira, eta ikasturte honetan abian jartzea aurreikusi da.



### 2.3. ARABAKO FORU ALDUNDIA

Azkenik Gerardo Escarzak, Arabako Foru Aldundiko kirol zerbitzu buruak, Araban egindako hausnarketa estrategikoan landutako gaiak eta bertan agertutako ideiak azaldu zizkigun. Hasieran, 2009an eginiko hausnarketari erreferentzia egin zion, bertan izandako emaitzak abiapuntutzat hartu baitituzte aurtengo lan hau abiatzeko eta konparatzeko.

Hauek dira hausnarketaren ideia nagusiak:

- Eskola Kirolaren definizioa, esparrua eta filosofia: Eskola Kirolaren plan estrategikoa egitea ezinbestekotzat jotzen da, adina, jarduera mota, hezkuntza sistemaren parte hartzea eta ikastetxeetan parte hartzea definituko duena.
- Generoaren ikuspuntua. Nesken praktikarako oztopoen azterketa, emakumezkoen erreferenteak izatea eta hauek ikusarazi. Bestetik jardueren egituraren berrikustea egin behar da.
- Erakundeen arteko koordinazioa eta egiturak. Kirol koordinatzailearen figura bultzatzea. Erakundeen arteko harremana hobetzea eta erakunde bakoitzaren egin beharrak zehaztea, guztiei bere proiektua eskatuz.
- Inplikaturako pertsonen prestakuntza eta profila. Profilak zehaztu, eta profil hauek izateko laguntzak eman. Honetaz gain, profil hauek dituzten erakundeak diru-laguntzen bidez saritzea proposatu du.
- Programa: ibilbideak, izen-emateak eta beste jarduera batzuk. Koordinatzaile eta zuzendari teknikoek figurak bermatzea. Jarduera fisiko ikuspuntutik eskaintza zabaldu eta honekin batera federazioen parte hartzearekin araudiak berrikusi.
- Behar bereziak dituzten komunitateen tratamendua. Sentsibilizazio kanpainak behar bereziak dituzten pertsonak ikus arazteko. Beraien parte hartzea laguntzeko diru-laguntzak sustatuko dira eta monitoreei baliabideak eskainiko zaie.
- Baliabide ekonomikoa, materialak eta instalazioak. Lau arlo hauek landuko dira: Kirol koordinatzailearen presentzia, konpentsazio irizpideak garatu diru-laguntza banatzeko orduan, prestakuntzarako laguntzak eman eta ikastetxeen instalakuntzen erabilera bultzatu.
- Euskararen erabilera. Lehenengo hitza beti euskaraz egitearen garrantzia azpimarratzen da. Honetarako ere euskaraz egiten duten erreferenteak ikus arazi behar dira, euskara sustatzeko baliabideak jarri behar dira eta kirolaren kanala euskararen erabilera sustatzeko aprobeixatu behar da.





### 3. JARDUNALDIAN ADOSTUTAKO EKARPENAK

Jardunaldian, erakunde ezberdinetako 100 pertsona inguruk parte hartu zuten. 10 gai ezberdin proposatu ziren eta pertsona bakoitzak hauetako bitan parte hartzeko aukera izan zuen.

Talde bakoitzari eztabaidarako tarte eman eta gero, gai bakoitzaren inguruko ekarpen orokorrak adostu ziren. Honetaz gain, partaide guztien iritzia jaso ziren, bestelako ekarpenen atalean ikusgai daudelarik.

Ondoren, gai bakoitzaren inguruan adostutako ekarpenak zehazten ditugu.

#### 3.1. ESKOLA KIROLA KONTZEPTUA

- Eskola Kirola ezaugarri edo ideia hauek izan behar ditu: Kirola eta jarduera fisikoa; Eskola Kirola hezitzailea; adinari egokitutako jarduerak; erakundeen inplikazioa izatea; adinak zabaltzea; baloreak eta osasun integrala; inklusiboa.
- Eskola Kirolaren adinak zabaldu eta eskaintza adinera egokitu beharko litzateke.

#### 3.2. ESKOLA KIROLAREN ADINAK

- 0-6 urte: jolas librea, ez arautua eta lehiaketarik gabekoa, legeak babestu behar du.
- 6-8 urte: psikomotrizitatea, lehiaketarik ez, legean esan zer egin daitekeen eta zer ez. Instalakuntza publikoen erabilerak mugatu.
- 12-16 urte: Eskola Kirolaren bitartez jarduera fisikoa landu, aisialdi eta lehiaketarik gabeko jarduera eginez.

#### 3.3. OSASUN ARLOA

- Eskola Kiroleko helburuetan Osasunaren Garapenarena jasotzea. Osasunaren kontzeptu higienikoa eta sanitarioa ez ezik, osasunaren ikuspegi osoa hartu beharko litzateke aintzat. Alegia, ongizate psikofisikoa eta emozionalera hedatu behar da.
- Legean nola jaso ez dakigun arren, erakundeen arteko eta departamenduen arteko lan-dinamika egin eta eragin beharraren garrantzia jasotzea.



- Doping edota sustantzia toxikoak debekatzearen aipua egitea. Bereziki, ikuspegi bikoitz batetik, osasunari kalte egin dakioken ikuspegitik eta bigarren alor bat, etika zehatz baten garapenarenetik.
- Osasun arduradunak Eskola Kiroleko arduretan inplikatzeko badira, balio erantsi bat har dezake gizaratean Eskola Kirolak. Eskola Kirola “dignifikatzeko” balioko luke.
- Derrigorrezko azterketa medikuak ez egitea proposatu dugu. Beraz, egungo araubidetik ateratzea proposatu dugu.

### 3.4. HEZKUNTZAREN PARTE HARTZEA

- Hezkuntza formalaren jarraipena izan. Kirol koordinatzailearen figura hezkuntzatik bultzatu, ordainketan, lan kargekin edota programekin.
- Beharreko prestakuntza, monitoreen tituluak zehaztu.
- Udalen instalakuntzak eta eskolen instalakuntzak erabiltzeko elkar lana.
- Programa hezitzaileak proposatu behar ditu.

### 3.5. IBILBIDEAK

- Ibilbide bakoitzean zer garatu behar den azaldu.
- Ibilbide bakoitzaren eragileak zeintzuk diren, hauen eskumenak eta baliabideak zehaztu.
- Ikastetxe eta kirol elkarten arteko sinergiak administratiboki bultzatu.
- Arautegi betearazteko baliabideak zehaztu. Arau hauste eta zigorrak Dekretuan zehaztu eta hau betearazteko baliabideak jarri.
- Errendimendu kupoak zehaztu, kirol modalitateak aztertu eta baliabideak eman.

### 3.6. UDALEN PARTE HARTZEA

- Udalak parte hartzea garrantzitsua izan beharko luke koordinazio eta antolaketa mailan, egitura egonkorra mantentzeko eta instalazioen erabileran. Konpetentzia hauek gehiago zehaztu behar dira Dekretuan.



- Laguntza tekniko eman, programaren koordinazioan lagundu eta kalitateaz arduratu beharko litzateke. Honetarako lankidetzak hitzarmenak egingo lirateke: udalerrri, Foru Aldundia eta eragileen artean.

### 3.7. BERDINTASUNA

- Taldeak, bai entrenamenduetan bai lehiaketan hasieran eratu ziren bezala mantendu behar dira (genero aldetik).
- Entrenamenduetan (taldeak) eta lehiaketetan, gaitasunen arabera parte hartuko da.
- Betiko kirola mantendu baina beste eredu batekin.
- Jarduera osagarriak gehitu, non dibertsitateak lekua duen.
- Emakumeak ahaldu eta arautegian ikusi arazi (epaileak, juezak, entrenatzaileak).

### 3.8. INKLUSIBITATEA

- Programa bereziak sortzea behar bereziak dituzten umeentzat.
- Kirol modalitateak egokitu jende gehiagok parte hartzeko.
- Eskola Kirola antolatzen duten eragile eta elkarte espezializatuen arteko lotura erraztu.
- Finantziario bideak aurreikusi kuota oztupo izan ez daitezela.
- Ikastetxea eta Eskola Kirola antolatzen duen arteko lotura legez bermatu.
- Eskola Kirolaren monitore formazioan inklusioa gai bezala lantzearen derrigortasuna.

### 3.9. FINANTZABIDEAK

- Eskola kirolak finantziario handiagora behar du kalitate gehiagoko zerbitzuak eskaini ahal izateko.
- Finantziario handiago hori bi iturri ezberdinetik etorri beharko da:
  - Administrazioak:
    - Kirol administrazioak, bakoitzak legean finkatzen den eskumenen arabera.



- Talde batek aipatu du kirol administrazioak ez ezik beste administrazio batzuek ere (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak)
- Parte hartzaileak / familiak, baina hau baztertzaile ez izateko, administrazioek behar dutenentzat diru laguntzak aurre ikusi beharko dituzte.
- Eskola kirolak egun duen finantziazioa hobeto kudeatu behar da:
  - Kalitatezko eskola kirola bermatzen duten banaketa-irizpideak ezarriko dira (proiektu zehatzak).
  - Laguntzak ez monetarioak izan daitezke (koordinatzaileak, instalakuntzak...)
  - Diru laguntzen kontrola eman behar da, benetan helburu hezitzaileetara edo eskola kirolera heltzen direla bermatzeko.

## 3.10. ARAU HAUSTEAK

- Hiru lurraldeetan era berdinean aplikatuko den zigor araudia ezarri behar da.
- Foru Aldundiak arduradun nagusiak izango dira, Udalak, federazioak eta ikastetxeak laguntzaileak izango dira.
- Ikuskatzaile figura sortu.



## 4. JARDUNALDIAN JASOTAKO BESTE EKARPENAK ETA AURRETIKO EKARPENAK

Jardunaldian adostutako ekarpenez gain, aurretik ekarpenak egiteko aukera egon zen eta jardunaldian bertan era askotako iritziak jaso ziren nahiz eta adostu gabeak izan. Hauek dokumentuan agertzea garrantzitsua dela uste dugunez, ondoren, beste ekarpen guzti hauek gaika antolatuta aurkezten ditugu.

### 4.1. ESKOLA KIROLA KONTZEPTUA

- Ez daude

### 4.2. ESKOLA KIROLAREN ADINAK

- 0-6 urte
  - Eskaintza egon badago, baina arautu eta definitu gabe dago. Modalitate batzuetan eskaintza badago (igeriketa, judo, etab.) eta beste modalitate batzuetan ezin da egon (futbola, saskibaloia...), horregatik arautu behar da.
  - Haurrek ez dute denbora liberrik.
  - Definitu behar da 0-6 adin tarte horretan jarduerak eskaini behar diren edo ez.
  - Jarduera librea egokitu behar dugu.
  - Kirolik ez adin horretan.
- 6-8 urte
  - Adin tarte honetan elkarteen parte hartzea mugatu.
  - Lehiaketarik ez.
  - Herrialde arteko mugikortasuna ekidin.

### 4.3. OSASUN ARLOA

- Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gomendioak helburuetan txertatzea. Osasuna eta eskola-kirola lotuta daude. Eskola-kirolaren plangintza egitean, osasun-helburuak txertatzea etapa bakoitzean. Eskola-kirolean osasunaren ikuspegia zabalagoa izatea (ikuspegi higienista baztertu eta medikalizatua hartzea); horretarako, helburuen artean ongizate sozioafektibo eta emozional integrala txertatzea.
- Aisia erabilera, praktika espontaneoak.



- Berezko arriskuak guregain hartu behar ditugu inongo dramatismo ez eta kudeaketa zailtasunik sortu gabe.
- Azterketa medikua, derrigorrezkoa?
- Eztabaida. 12-16 etapa. Eskaintza berririk ez dago.
- Errendimendu gorena eta partaidetza kirola batera egitea zaila. Eredu mistoa darabilgu non errendimenduak bere egiten dituen baliabideak.
- Osasuna > kirol-ohitura errotuko badugu, horretarako, eredu unibertsal eta erreala. Sarbide aukera berdinak txertatzea ... kirola ez diren jarduerak non daude eta nola txertatuko ditugu: dantza, joko-jolasa ... Kirola da eskubide unibertsala?
- Heziketa Fisikoko ordu gehiago.
- Eskola Kirola prestigioa. Komunikazioa.
- HEZKUNTZA: IHPan txertatu Eskola Kirola. Eskola kontseiluan.

#### 4.4. HEZKUNTZAREN PARTE HARTZEA

- Eskola Kirola hezkuntza da. Legean dioen bezala, heziketa prozesu barruan dago eta ez da ikusten honen protagonismoa.
- Eskola curriculum-ean egon behar du.
- Hezkuntza sailak diruz-lagundu eta kudeatu beharko luke.
- Programa hezitzailea izan behar du, eta horretarako hezkuntza sailak ikuskatu behar du.
- Koordinatzaile profilak hezitzaileak izan beharko lukete.
- Hezkuntza Sailak, Eskola Kirolaren zuzendaritzan eta kudeaketan inplikatu beharko litzateke, ikastetxeak aholkatzen.

#### 4.5. IBILBIDEAK

- Ibilbide egokiak kirol arloko garapenarekin lotura dute. Baldintzak aztertu behar dira.
- Adin txikietan talentuak detektatu eta ibilbidea burutzeko zailtasunak daude.



- Kirol elkarte batzuk ez dute sinesten parte-hartze ibilbidean.
- 11-12 urte bitartean aniztasuna.
- Adosten dena bete behar da eta agente ezberdinen inplikazioa lortu behar da horretarako.
- Ibilbide bakoitzaren ezaugarri eta konpetentziak argitu.
- Kluben eta ikastetxeen arteko harremana hobetu.
- Erakundeen arteko sinergiak topatu behar dira.
- Dirua behar da sustapenerako eta ikuskaritzak egiteko, baita ere, jarduera mota batzuk saritzeko.
- Parte hartze ibilbidea zabalegi geratzen da, ibilbide bakoitzaren zehaztaperen maila handitu behar da.
- Talde eta banakako kirolen arteko ezberdintasunak, gehiago zehaztu behar da eta horretarako baliabideak jarri.
- Hastapenean/detekzioan adinak errebisatu behar dira, adin hauetan sailkatzea negatiboa izan daiteke.
- Instalakuntzen erabilera ikastetxeei erraztu, klubek indar handia hartzen ari dira, gehien bat errendimenduan geratzen direlarik.
- Parte hartzea bultzatu beharko litzateke.

#### 4.6. UDALEN PARTE HARTZEA

- Legea oso orokorra da eta Dekretuak udalerriek egin beharrekoa zehaztu beharko luke.
- Legeak zehaztasun maila altuago izan beharko luke, ez utzi bere eskumenak interpretaziora (lagundu, hitzarmenak burutu...).
- Legea eta Dekretua ez da betetzen, honen kontrola egiteko baliabideak jarri eta bete arazi.



- Udal instalakuntzen erabilera zabalagoa, ikastetxeen instalakuntzak erabili.
- Eusko Jaurlaritzaren inplikazio zuzena.
- Estructura tekniko propioa Eskola Kirolaren kudeaketan laguntzeko.
- Eskola Kirolaren programan eta adinetan antolaketa, koordinazioa eta laguntza.
- Legea betetzen dela ziurtatuko dute, eta erakundeen arteko harremana bideratuko dute.

#### 4.7. BERDINTASUNA

- Formulak berriro behar dira, hezkuntza programaren bidez.
- Mistoia ez, gaur egun dagoen bezala mantendu.
- Eskola-kirolak beste izaera bat izan beharko luke, federazioko ereduari erantzun ez.
- Beste jarduerak aisialdira bideratu. Bakoitzaren beharrei testuinguru ezberdinak lortuz.
- Kirol kluba ez den beste zerbaite.
- Topaketa formatua egokiagoa da.
- Mistoaren alde agertzen dira pertsona batzuk.

#### 4.8. INKLUSIBITATEA

- Baliabideak jarri irakasle edo begirale laguntzaileak izateko.
- Gizarte osoari zabalduetako kirol modalitateen promozio jarduerak antolatu.
- Esklusio arriskuan dauden pertsonen orientazio zerbitzua eskaini, hau udaletxetik eman daiteke.
- Ohitura osasuntsuaren inguruko formazio saioak gurasoei bideratuta.
- Eskola Kiroletik at dauden kirol modalitateak sistema barruan sartu.
- Inklusibitatea lortzeko antolatzen diren ekintzak saritu.





- Eskola Kirol programa inklusiboa.
- Eskola Kirola ohiko instalakuntzetatik atera.
- Behar bereziak dituzten pertsonen erantzuna eman ahal izateko diagnostika egin.
- Eskola Kirol Legearen arima integratzailea eragile guztiei transmititu.
- Herrietan aniztasun eta elkarbizitza mahaia sortu.

#### 4.9. FINANTZABIDEAK

- Parte hartzaileek/familiak ordaindu beharreko kuota:
  - Ez dira baztertzailerik izan behar.
  - Eskola kirolean ez litzateke asko ordaindu behar baldin eta nahi bada kirola ahalik eta ume gehien egin dezaten.
  - Pertsona denek eskola kirolean parte hartzeko aukerak eman (egoera ekonomikoak eta behar bereziak dituzten pertsonak kontutan izan).
- Enpresek goi mailako kirolari laguntzeagatik abantaila fiskalak jasotzen dituzten bezala, eskola kirola sustatzeagatik ere jaso behar lituzkete.

#### 4.10 ARAU HAUSTEAK

- Ez daude



## 5. GOGOETA

World Kafearen ekarpenen aipamena amaitu ostean, jarduna arrakastatsua izan dela esan dezakegu.

Batetik, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Aldundiek, Eskola Kirolak duen garrantzia erakutsi dute. Garrantzia jardunaldi hau antolatzeko orduan eta hausnarketa estrategiko prozesuak martxan jartzean.

Bestetik, garrantziaren adierazle da baita ere, bertan parte hartu zuen pertsona kopura. Eskerrak hauei guztiei, beraien ekarpenak Eskola Kirola hobetzeko baliogarriak izango baitira.